



Lapurtzen saiatu da aiztoa eta maskara erabiliz Barakaldon

Ertzaintzak gizonezko bat atxilotu du gaur, banketxe batean lapurreta egiten saiatu eta gero, hango langileei aizto batekin mehatxu eginda.

Gertaera 10:15 pasatxo zirenean izan da, BECen inguruetan dagoen Caixabanken egoitza batean. Gizonezkoa sartu da, inauterietako maskara bat zeramala, eta lanean zeuden bi beharginei mehatxu egin die laban batekin, eta dirua eskatu.

Arreta galdu duen une batean, langileek ihes egitea lortu dute eta, ondoren, lapurrak ere alde egin du, ihesean maskara eta aiztoa edukiontzi batera botata.

Alabaina, 15 minutu inguru geroxeago, Ertzaintzak ustezko lapurra atxilotu du bizi den etxeko atarian sartzen ari zela.

Adingabeei argazki intimoak eskatzeagatik atxilotu dute Basaurin

43 urteko gizonezko bat atxilotu du Ertzaintzak Basaurin nerabeen argazki konprometituak lortzen saiatzeagatik. Sakeleko telefonotarako txat-aplikazio bat erabilita, adingabe bati argazki intimoak eskatu zizkion gizonak, bereak zein lagun batenak, diruaren truke.

Arau hausteak jaitsi ziren 2016an

2013an, mila biztanleko arau-hausteen tasa 40,53koa zen, eta gaur egun 37,15koa da. Aurten, delitu tipologia gehienetan gertatu da beherakada, batez ere gizarte-alarma gehien sortzen dutenetan: gizahilketetan, sexu-erasoetan, etxebizitzetako lapurretetan...



Beherakaden kapitulua deliturik larrienekin zabaltzen da, gizahilketa kopuruarekin. 11 izan ziren 2015ean, eta 6, 2016an. Sei kasu horiek, gainera, dagoeneko argitu ditu Ertzaintzak, eta delitu horien ustezko egileak justiziaren esku utzi ditu.

Lesioak ere jaitsi dira (%0,52), eta horien barruan bereziki jaitsi dira familia barruko tratu txarrak (%5,84). Sexu-askatasunaren kontrako arau-hausteetan ere, nabarmena izan da beherakada (%4,03).

Delituen artean, hauek egin dute gora: ebasketek (%2,76), alkoholaren edo drogen eraginpean gidatzeak (%4,78), ibilgailuen lapurretek (%11,53) eta iruzurrek (%6,32), batez ere Internet bidez egindakoak.

Datuak lurraldez lurralde aztertuta, delinkuentziak behera egin du guztietan: Araban (%5,39), Bizkaian (%1,18) eta Gipuzkoan (%6,20). Antzeko joera jaso da hirigune nagusietan ere: Gasteizen (%7,25), Donostian (%5,33), Barakaldon (%4,45), Getxon (%13,83) eta Irunen (%0,61). Bilbon, berriz, %5,02 ugaritu dira delituak, lapurreten ondorioz, gehienbat.

Youtuber bat salatu dute, Interneten etxegabe bat umiliatzeagatik

Bartzelonako Udaltzaingoak 19 urteko *youtuber* bat salatu du, etxegabe bati hogeita euro eta hortzetako pasta barruan zuten gailera batzuk emateagatik. *Youtuber* horrek milioi bat jarraitzaile inguru ditu, eta bideoa bere sare sozialen bidez zabaldu zuen.

Udaltzaingoak joan den asteartean izan zuen bideo horren berri, eta *youtuberrak* etxegabea umiliatzen zuela ikusi ostean, gizonarengana jotzea erabaki zuten, gazteak delitu bat egin zuelakoan.

Bideo horretan, ReSet ezizenez ezaguna den *youtuberrak* hortzetako pasta sartzen du gailera batzuen barruan. Ondoren, kalera irten eta etxegabe bati oparitzen dizkio. Hori guztia bideoz grabatzeaz gain, etxera bueltatzen denean bere iritzia ematen du, eta gailera horiei esker gizonari "hortzak garbitzen" lagunduko diola esaten du.

Hala, udaltzainek etxegabea aurkitu zutenean salaketa bat jartzeko aukera eman zioten, gazteak umiliatu zuela ulertuta eta egindakoa delitu bat suposatu dezakeelakoan. Zehazki, gizarte-bazterketa arriskuan dagoen pertsona horren ohorea ez errespetatzeagatik salatu dute *youtuberra*, eta gorroto-delitu baten erantzulea dela ulertzen dute.

Youtuber horrek hamar milioi bisita inguru lortzen ditu hilero. Halaber, You Tubera igotzen dituen bideoei esker dirua irabazten du.



Malgua izatetik zurruna izatera igaro daitekeen materiala sortu dute

Textia Solutions euskal enpresak material berri bat garatu du. Guztiz malgua dela pentsa litekeen arren, aire guztia kentzen zaion bakoitzean zurruna bihurtzen da. Material berria Bilbon aurkeztu dute, eta azken bi urteotan froga ugari egin dituzte horrekin. Egun produkzio fasean dago eta laster merkaturatuko dute.

Varstiff izeneko materiala moldagarria da (tolesteko edota okertzeko aukera ematen du). Gainera, airea kentzen zaion bakoitzean, guztiz zurruna bihurtzen da. Hala, aukera anitzak ematen dituen produktu berria dela nabarmendu dute sortzaileek. Airea sartzean, aldiz, hasierako egoerara bueltatzen da eta moldagarria bihurtzen da berriro.

Geruza desberdinez osatuta dago material berria, eta muturreko tenperaturei aurre egiteko gai da.

Zaporerik ez duten tomateak? Ikerketa batek zergatia argitu du



Science aldizkariak kaleratu du Txinako, AEBko eta Israelgo adituek egindako ikerketa. Valentziako Unibertsitate Politeknikoko ikerlariek ere lagundu dute azterketan.

Aldaera tradizionalekin erkatuta, zaporea galdu dute gaur egungo tomateek. Ikerlarien lana hori zergatik gertatu den argitzea izan da.

Tomatearen azukre eta azidoek aktibatzen dituzte gustuaren errezeptoreak. Usaimen-errezeptoreak konposatu lurrunkor talde baten bidez aktibatzen dira, eta hortxe dago gakoa: "zapora ona konposatu horien kopuruaren eta proportzioaren arabera da".

398 tomate aldaera (antzinakoak, basatomateak eta komertzialak) aztertu dituzte ikerlariek eta zaporearengan eragina duten konposatuak identifikatu dituzte.

Celta-Alaves eta Atletico Madril-Bartzelona, finalerdiak



Joaneko partidak otsailaren 1ean jokatuko dira, eta itzulikoak astebete geroago.



Zineuskadi elkarteak sustatzen duen Zinema Euskaraz programa 'Ballerina' filma euskaraz eramango du zinema aretoetara asteburuan. Hain zuzen, Barakaldoko Yelmo Megapark zinematan.

Kontakizunak amets bakarra duen neskatila baten istorioa du jomuga. Felicia neskatila umerzurtz bat da, ausarta eta dantzari bilakatu nahi duena. Ametsa egi bihurtzeko bidean, Victor bere adiskidearen laguntza izango du. Gazte asmatzaileak eta biak abentura zirraragarriak biziko dituzte Parisen.

Aurrematrikula epea astelehenean zabalduko da

Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak, 2017-2018 ikasturterako aurrematrikula kanpaina aurkeztu du gaur, Bilbon.

Prozesu osoa, internet bidez egin ahal izango da www.hezkuntza.net helbidean. Bide hori aukeratzen dutenek ez dute beharrezko izango, beraz, eskatutako dokumentazioa hautatutako ikastetxera eramatea. Pauso hori *on-line* egin beharko dute, eta dokumentuak eskaneatuta bidali.

Aurrematrikula *online* egiteko azken eguna otsailaren 4a izango da. Nola nahi ere, izen-emate prozesu osoa ikastetxeetan egiteko aukera ere egongo da, ohi bezala.

Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasle guztiek aurrematrikula egin beharko dute, nahiz eta oraindik ez jakin gaitutako duten ala ez. Familiek hiru ikastetxe aukeratu behar izaten dituzte aurrematrikula egiterakoan, lehentasunaren arabera hurrenkeran adierazita.

EGURALDIA Asteburuan, hodeiak izango dira nagusi. Larunbatean, goizean goiz hodeiak desagertu eta eguerdian giro eguzkitsua espero arren, ez du luzaroan horrela iraungo, arratsaldean hodei gehiago agertuko baitira. Hala ere, igandean, ez da euri kontu handirik espero; noizbehinka euri txikia egingo du han-hemenka, baina beste zenbait tokitan ateri eutsiko dio egun osoan.

